

Bertaratutako kideak:

Laura Sanzol Olleta.

Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FSIE-SEPNA)

Sonia Rivas Borrell.

Unibertsitateen ordezkaria (Nafarroako Unibertsitatea)

Iosu Mena Sarasola.

Ikastetxe publikoetako zuzendarien ordezkaria

Mikel Rodríguez Aguirreche.

Enpresarien elkarten ordezkaria

Ignacio Toni Echeverría.

Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen ordezkaria (CORMIN)

Pedro Rascón Macías.

Aitortutako ospea duen pertsona

Pablo Arriazu Amat.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Cristina Bayona Saez.

Unibertsitateen ordezkaria (NUP).

José Jorge Lanchas Rivero.

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE).

Santiago Álvarez Folgueras.

Guraso elkarten federazioen ordezkaria (HERRIKOA).

Arantxa Ruiz Vidorreta.

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (STEE-EILAS).

Esther Lacasta Pérez-Iizarbe.

Toki entitateen ordezkaria

Iruñean, 2020ko ekainaren 16ko 16:55ean, Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkura edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia bildu da Hezkuntza Departamentuko ekitaldi-aretoan, Manuel Martín Iglesias jauna kontseiluburu dela, alboan adierazitako kideak bertan direla, eta Antonio Iriarte Moncayola jauna idazkari dela. Honako hau izan da gai zerrenda:

1. Aurreko bilkuraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.
2. Kontseiluburuaren informazio orokorra.
3. 2/2020 Irizpena.
4. 3/2020 Irizpena.
5. 4/2020 Irizpena.
6. Galderak eta eskaerak.

Arantza Zuriarrain Iñiguez.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Germán Chocarro Garbayo.

Guraso elkarten federazioen ordezkaria
(BRITILA).

Mikel Lizaso Odriozola.

Ikastetxe publikoetako irakasleen
ordezkaria (LAB).

Carmela Muñoz Ventura.

Ikastetxe pribatuetako irakasleen
ordezkaria (FETE-UGT).

M^a José Anaut Couso.

Sindikatuaren ordezkaria (UGT).

Eduardo Mayor Garcia.

Guraso elkarten federazioen ordezkaria
(CONCAPA).

Ignacio M^a Iraizoz Zubeldia.

Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate
titularren ordezkaria (ANEG-FERE).

Lourdes Larunbe Arretxe.

Ikastetxeetako Administrazioako eta
Zerbitzuetako langileen ordezkaria

Gil Sevillano González.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Ezin etorria adierazi dute:

María Rodríguez Moran.

Guraso elkarten federazioen ordezkaria
(HERRIKOA)

Tomás Rodríguez Garraza.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Begoña Unzué Vela.

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

M^a Soledad Garjón López.

Ikastetxe publikoetako irakasleen
ordezkaria (AFAPNA)

Etorri ez direnak:

Sergio Iribarren Galbete.

Guraso elkarten federazioen ordezkaria
(SORTZEN)

Ainara González Rubio.

Berdintasunaren alde lan egiten duten
elkarten ordezkaria

Mario Fabo Caleo

Toki entitateen ordezkaria

Patricia Fanlo Mateo.

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria
(I-E)

Jabi Arakama Urtiaga.

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria
(Geroa Bai).

Maite Pellejero Olcoz.

Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien
ordezkaria.

Kontseiluburuak hitza hartu du, eta adierazi du poz-pezik dagoela berriro ere aurrez aurre bildu ahal izan direlako. Halaber, bereziki aipatu nahi du Nafarroako

Eskola Kontseiluko batzorde iraunkorrek itxialdian egin duen lana. Eta jakinarazi du Eskola Kontseiluaren beste osoko bilkura bat egin nahi duela ekainaren amaieran.

1. Aurreko bilkuraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.

Kontseiluburuak kideei galdetu die ea egin behar duten aurreko bilkuraren aktari buruzko alegaziorik edo iruzkinik.

Akta onetsi da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

2. Kontseiluburuaren informazio orokorra.

Kontseiluburuak labur azaldu du zer parte-hartze izan duen Eskola Kontseiluaren ekitaldi eta bileretan, osoko bilkurak 2020ko otsailaren 13an egin zuen azken bileratik.

3. 2/2020 Irizpena.

Kontseiluburuak adierazi du, irizpen horri dagokionez, ez dela zuzenketarik aurkeztu eta, beraz, eskatzen du irizpenaren testua bozkatzeko.

Bertaratutako kideek baiezkoa eman diote 2/2020 Irizpenari.

4. 3/2020 Irizpena.

Kontseiluburuak adierazi du, irizpen horri dagokionez, ez dela zuzenketarik aurkeztu eta, beraz, eskatzen du irizpenaren testua bozkatzeko.

Bertaratutako kideek baiezkoa eman diote 3/2020 Irizpenari.

5. 4/2020 Irizpena.

Kontseiluburuak adierazi du bi zuzenketa aurkeztu direla. Hori dela eta, zuzenketak bozkatuko dira.

1. zuzenketa: Pedro Rascónek hitza hartu du, eta adierazi du zergatik aurkeztu duen. Izan ere, haren ustez, administrazio erabaki horrek hizkuntza arrazoiengatiko bereizketa dakar.

Gil Sevillanok erantzun dio, eta esan dio aurreko legegintzaldian ezarri zela ikastetxe horren plangintza eta erabakia hartu zela, esku hartzen zuten alderdi guztiak ados egonda.

Santiago Álvarezek esan du ikastetxeetako hizkuntza bizikidetzaren alde daudela eta, beraz, zuzenketaren aldeko botoa emanen dutela.

Germán Chocarrok galdetu du ea beharrezkoa den ikastetxe berri bat.

Gil Sevillanok erantzun du horrela zegoela planeatua, eta, hezkuntza eremuan espazioa behar denez, ikastetxe hori beharrezkoa dela.

Mikel Lizasok adierazi du ez zaiola egokia iruditzen “bereizketa” hitza erabiltzea ikastetxe berri baten eraikuntza kalifikatzeko.

Carmela Muñozek esan du zuzenketaren aldeko botoa emanen duela.

Zuzenketa bozkatu da. Honako emaitza honekin zuzenketa ukatu da: Aldeko botoak: 4. Abstentzioak: 3. Kontrako botoak: 15.

2. zuzenketa: Sonia Rivasek hitza hartu du eta azaldu du zergatik aurkeztu duen zuzenketa. Esandakoaren arabera, haren ustez, aurreikusitako tamaina izanen duen ikastetxean pedagogia terapeutikoko lanpostu bakar bat egotea oso urria da.

Gil Sevillanok esan du hori ez dela foro egokia gai hori aztertzeko. Gainera, testuan langile batzuk aipatzen dira, ikastetxe berrian hasteko aurreko ikastetxetik bereiziko direnak, hain zuzen; baina horrek ez du esan nahi ikastetxe berriko langileen beharrak ezarriak eta finkatuak daudenik.

Sonia Rivasek adierazi du, behin informazioa jasota, zuzenketa kenduko duela.

Kontseiluburuak eskatu du 4/2020 Irizpena bozkatzeko, eta honako emaitza honekin onetsi da: Aldeko botoak: 17. Abstentzioak: 3. Kontrako botoak: 4.

6. Galderak eta eskaerak.

Ignacio Tonik esan du ez dagoela ados suspertzeko planaren dokumentuarekin, ez baitira jaso –eta, beraz, ez baitira kontuan hartu– Nafarroako Eskola Kontseiluaren aurrean aurkeztu zituen ekarpenak.

Kontseiluburuak adierazi dio uste duela ez dituztela ekarpen horiek jaso eta, beraz, egiaztatuko duela horiek jaso diren eta zer gertatu den haiekin. Horrez gain, esan du ez direla ekarpen asko aurkeztu suspertzeko plan horretarako.

Lourdes Larumbek adierazi du, hainbat alditan esan bada ere, nabarmendu nahi duela hezkuntza komunitatea aipatzen denean horren barnean daudela irakasle ez diren langileak, ikastetxeetan lan egiten baitute. Horregatik, eskatzen du langile horiek berariaz aipatzeko.

Carmela Muñozek hitza hartu du eta eskerrak eman ditu hezkuntza komunitateak pandemia aldian hori gainditzeko egin duen lana aitortu izanagatik.

Pedro Rascónek berriro eskatu du kideei zuzenketak igortzeko osoko bilkuraren bilerak egin baino lehen.

Kontseiluburuak esan du zuzenketak Nafarroako Eskola Kontseiluaren webgunean daudela eta kide guztiek hori ikus dezaketela.

Halaber, Pedro Rascónek eskatu du zuzenketak aurkezteko egitura azter dadila, haren ustez, egungo egituran ezin baitira argudiatu zuzenketen arrazoiak.

Kontseiluburuak adierazi dio zuzenketa justifikatzeko testu osoa txerta daitekeela.

Horrez gain, Pedro Rascónek eskatu du bileren gai zerrendari gehitutako dokumentuak fitxategietan gorde daitezela kideen eskura.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, kontseiluburuak osoko bilkurara bertaratu diren kideen parte hartzea eskertu du, eta bilera bukatutzat eman du 17:41ean, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.